

06/2019 UDALEKO OSOKO BILKURA

2019KO APIRILAREN 29AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)
Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)
Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu)
Iñaki Merino Castro (EAJ/PNV)

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:

Itziar Azurza-Sorrondegui

Anoetako udaletxean, 2019ko APIRILAREN 29an arratsaldeko zazpitan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa alkatearen lehendakaritzapean, eta Itziar Azurza Sorrondegui andrea aritu da idazkari lanetan.

Jose Ignacio Otermin Garmendia, Pedro María De la Iglesia Sanchez, eta Francisco Berbel Perez zinegotziak ez dira etorri.

1.- 2019KO MARTXOAREN 25 ETA APIRILAREN 1EAN OSPATURIKO BILKUREN AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

2019ko martxoaren 25 eta apirilaren 1ean ospaturiko bilkuren aktak aho batez onartu dira.

2.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2019KO MARTXOAREN 21ETIK APIRILAREN 15A BITARTE, 129 ZENBAKITI 172 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

2019ko martxoaren 21etik apirilaren 15a bitartean izaniko ebazpen berri eman dira eta udalbatza jakinaren gainean geratu da .

3.- 2020 URTERAKO ANOETAKO JAIEGUNA IZENDATZEA.

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailaren apirilaren 10eko 51/2018 Dekretua bidez Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2020. urteko jaiegunen egutegia onartu da. 2018ko apirilaren 16ko 72 zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua.

Aipatutako dekretuaren 2. artikulua ondorengo xedatzen du:

1.- Lan ondorioetarako, bi mila hogeitun urtean, tokian tokiko jaietako bi egun ere izango dira jaiegun, hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira errekuiperatu behar. Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkariek zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako udalbatzek proposatuta. Egunduek berberak edo beste batzuk izan daitezke lurralde historikoetako udalerrietan.

2.- Dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean egin behar dute proposamena udalek, eta kokapenagatik dagokien lurralde-ordezkaritzara bidali.

Alkateak bi mila eta hogeitun urtean **2020ko ekainaren 11, Gorpuzti eguna**, Anoetako Udalerriko jaietako egunetako bat izatea proposatu du.

Aipatutako proposamena aho batez onartu da.

4.- TOLOSAKO LEHEN JABETZAKO ERREGISTROAN INSKRIBATUTA

DAGOEN 2.023 FINKAREN %10A EROSEKO, ALKATEAK ANOETA LANTZEN S.A-REN ADMINISTRATZAILE KONKURTSALARI EGINIKO ESKAINTZA BERRESTEA.

HONAKO GERTAKARIAK IKUSITA:

LEHEN GERTAKARIA: Anoetako Udala udalerrian bertan dagoen honako lursail honen jabe da, % 90 eko proportzioan:

- 2.023 finka erregistrala
- Azalera: 1.010,50 m²
- Kokapena: Arau Subsidiarioetako “Lasarbe” izeneko 14.sektoreko exekuzio unitatea.Erabilerak: babes publikoko 18 etxebizitzako eraikina eraikitzeko aukera.
- Jabetza erregistroko inskripzioa: 2.266 tomoa, 40 liburua
- Izaera juridikoa: zatiezina (hirigintza plangintzaren ikuspegitik)

BIGARREN GERTAKARIA: Aipatutako lursailaren gainerako % 10aren proportzioaren jabetza Anoeta Lantzen S.A.-ri dagokio. Jakina da baltzu anonimo hau “ hartzekodunen lehiaketa edo konkurtsa” egoeran dagoela, Donostiako merkatal arloko lehen epaitegian izapidetzen ari den 138/2018 prozedura bidez. Eta prozedura honen baitan likidazioa egiteko fasean, salgai jarri da aipatutako 2.023 finka erregistraren % 10eko zatia, enkante edo subasta publikoz.

HIRUGARREN GERTAKARIA: Aurreko enkante publikoa hutsik gelditu zela berri eman zion administratzaile konkurtsalak Anoetako Udalarik eta Alkateak egoki ikusi zuen 2.023 finkaren jabetza osotasunean eskuratzea, “atzera-egite edo retracto” eskubidea egikaritzuz, etorkizunean beste inork jabetza lortu eta “ ondasun zatiezinaren zatiketa akzioa” ekidin asmoz, nagusiki.

LAUGARREN GERTAKARIA: 2019ko apirilaren 1ean ofizio bidez aurkeztu zitzaion Anoeta Lantzen S.A.-ren administratzaile konkurtsalari Anoetako udalaren eskaintza, 10.000.-eurokoa, 2.023 finka erregistraren % 10-a erosteko. (Gehigarri gisa atxikituta dator).

UDALBATZAK ONARTU DU:

Lehenak: Anoetako Udalaren izenean Pello Estanga jaun Alkateak 2019ko apirilaren 1ean Anoeta Lantzen S.A.-ren administratzaile konkurtsalari egindako 10.000.-euroko eskaintza, 2.023 finka erregistraren % 10-a erosteko, berrestea.

Bigarrena: Pello Estanga jauna, 2015eko ekainaren 13an kargua hartu zuenez, Anoetako Alkatea den neurrian, baimentzea Anoetako Udalaren izenean izenpetu dezan aurreko salerosketa eragiketaren eskritura publikoa, Tolosako Pedro Elozegi jaunaren notaritzan, legez dagozkion gastu eta zergak bere gain hartuz.

5.- GALDE-ERREGUAK

Bat ere ez.

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpi terdiak direnean; honetaz guztiaz, nik, idazkariak, fede ematen dut.